

PLE 03-FEB-22 (2/CP)

«IKUSIRIK espedientean jasotako agiriak Iruñeko Udalaren, Hirigintza Gerentziaren eta Haur Eskolen 2022ko aurrekontu luzatuaren aldaketaren inguruan –Alkatetzak 2021-12-31ko ebazpenaren bidez onetsiak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat– eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat eta proposatutako inbertsioak premiazkotzat eta atzeraezintzat hartuta, HAU ERABAKITZEN DA:

IRUÑEKO UDALAREN AURREKONTUAN:

1.- Aldaketa egitea 10/92501/629090 partidari (Herritarren Komunikazioa. Beste ibilgetu materiala), 50.184,75 euroko zenbatekoarekin, informazio-*mupiez* hornitzeko eta horiek instalatzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

2.- Aldaketa egitea 11/92001/626000 partidari (Informatika eta teknologia berriak. Informazioa prozesatzeko ekipoak), 115.000,00 euroko zenbatekoarekin, Animsari enkargua egiteko ekipoak eros ditzan, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

3.- Aldaketa egitea 11/92001/641000 partidari (Informatika eta teknologia berriak. Informazioa prozesatzeko ekipoak), 679.319,44 euroko zenbatekoarekin, Animsari enkargua egiteko aplikazioak gara ditzan, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

4.- Aldaketa egitea 30/15220/780000 partidari (Hiri-birgaitzea. Transferentziak familiei), 1.426.912,91 euroko zenbatekoarekin, birgaitze-hitzarmenetan (dirulaguntza izendunak) erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta. Honako hauek gehitzea Aurrekontua betetzeko Oinarrien 8. Eranskinari (Dirulaguntza izendunak), aldatutako partidaren kargura eta eraikinak birgaitzeko laguntza gisa:

ONURADUNA	ZENBATEKOA
Landa Doktoarearen kaleko 2ko jabekideak	171.888,63 euro
Labayen Doktoarearen kaleko 14ko jabekideak	109.187,45 euro
San Martin Doktoarearen kaleko 2ko jabekideak	174.443,17 euro
San Martin Doktoarearen kaleko 4ko jabekideak	108.725,34 euro
Atarrabiako etorbideko 16-Ako jabekideak	48.672,44 euro
Atarrabiako etorbideko 16-Bko jabekideak	28.856,75 euro
Atarrabiako etorbideko 16-Cko jabekideak	95.015,39 euro
Atarrabiako etorbideko 18-Ako jabekideak	85.388,36 euro
Atarrabiako etorbideko 18-Bko jabekideak	57.896,30 euro
Atarrabiako etorbideko 18-Cko jabekideak	85.388,36 euro
Atarrabiako etorbideko 20-Ako jabekideak	94.202,34 euro
Atarrabiako etorbideko 20-Bko jabekideak	96.474,42 euro
Atarrabiako etorbideko 20-Cko jabekideak	94.345,60 euro
Atarrabiako etorbideko 22-Bko jabekideak	44.823,80 euro
Sanduzelai kaleko 5eko jabekideak	50.000,00 euro

ONURADUNA	ZENBATEKOA
Salva Doktoarearen kaleko 1eko jabekideak	50.000,00 euro
Agur Maria zeharkaleko 11ko eta Carriquiri kaleko 8ko jabekideak	31.604,56 euro

5.- Aldaketa egitea 30/15220/740000 partidan (Hiri-birgaitzea. Kapital-ekarpenak udal-sozietateei), 771.500,00 euroko zenbatekoarekin, Pamplona Centro Histórico, S.A.-ren maileguaren amortizazio-kuotarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

6.- Aldaketa egitea 30/16400/622090 partidan (Hilerria. Beste eraikuntza batzuk), 495.000,00 euroko zenbatekoarekin, errausketa-labe berrietan erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

7.- Aldaketa egitea 30/31120/622090 partidan (Desinfekzio Parkea, Beste eraikuntza batzuk), 60.000,00 euroko zenbatekoarekin, komun autogarbigarrietan erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

8.- Aldaketa egitea 30/31120/632090 partidan (Desinfekzio Parkea. Berrezarpen-inbertsioak beste eraikin eta eraikuntza batzuetan), 100.000,00 euroko zenbatekoarekin, Zitudelako komun publikoak berritzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

9.- Aldaketa egitea 40/13400/609000 partidan (Mugikortasuna. Erabilera publikoko azpiegiturak eta ondasunak), 1.270.000,00 euroko zenbatekoarekin, Labriteko ardatz jasangarrian erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

10.- Aldaketa 40/17211 623090 partidan (Energia Agentzia. Beste instalazio batzuk) 11.000,00 euroko zenbatekoarekin, instalazio fotovoltaikoetan erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

11.- Aldaketa egitea 40/45300/632090 partidan (Oinarrizko azpiegiturak eta garraioak. Inbertsioak eta konponketak beste eraikin eta eraikuntza batzuetan), 220.000,00 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Vínculo plazako aparkalekua	120.000,00 euro
Bigarren Zabalguneako aparkalekuak	100.000,00 euro

12.- Aldaketa egitea 41/15331/619000 partidan (Bide publikoa. Inbertsioak eta konponketak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan), 2.235.000,00 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Bide publikoko zoladuren mantentze-lanetarako kontratua	500.000,00 euro
Aita Moret- Chinchilla kaleen berrurbanizazioa	120.000,00 euro
Osoz etxe-multzoaren berrurbanizazioa	235.000,00 euro
Basotxoaren berrurbanizazioa	1.380.000,00 euro

13.- Aldaketa egitea 41/15331/619000 partidan (Bide publikoa. Berrezarpen-inbertsioak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan) 510.000,00 euroko zenbatekoarekin, San Migel kolonian obra egiteko, honako hauek baliatuta:

- Kreditu-gehikuntza, 366.549,07 eurokoa, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.
- Kreditu-sorrera, 143.450,93 eurokoa, Iruñerriko Mankomunitatearen ekarpenak finantzatuta (diru-sarreraren 20/61900 partida).

14.- Aldaketa egitea 41/15331/619000 partidan (Bide publikoa. Berrezarpen-inbertsioak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan) 2.800.000,00 euroko zenbatekoarekin, obrak egiteko Manuel de Falla kalean eta Milagrosako beste zenbait kaletan (obra-zuzendaritza barne), honako hauek baliatuta:

- Kreditu-gehikuntza, 1.800.759,79 eurokoa, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.
- Kreditu-sorrera, 999.240,21 eurokoa, Iruñerriko Mankomunitatearen ekarpenak finantzatuta (diru-sarreraren 20/61900 partida).

15.- Aldaketa egitea 41/15332/609000 partidan (Hiri-altzariak. Erabilera publikoko azpieg. eta ondasunak), 323.000,00 euroko zenbatekoarekin, haur-jolasguneetan erabiltzeko (estalkiak barne), diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

16.- Aldaketa egitea 41/92062/632020 partidan (Eraikin orokorrak edota erabilera anitzekoak. Berrezarpen-inbertsioak etxebizitzetan), 94.000,00 euroko zenbatekoarekin, San Pedro eta Merkatuko Esku-hartze Orokorreko Proiektuaren idazketarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

17.- Aldaketa egitea 50/33600/619080 partidan (Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa. Berrezarpen-inbertsioak ondare historikoan), 500.000,00 euroko zenbatekoarekin, Parmako bastioian erabiltzeko, honako hauen bidez finantzatuta:

- Diruzaintzako Gerakina finantziazio ukituko gastuetarako, 201.000,00 euroko zenbatekoarekin (diru-sarreraren 20/87010 partida)
- Diru-sarreraren 20/91301 partidaren (Epe luzeko maileguak) gehikuntza, 299.000,00 euroko zenbatekoarekin.

18.- Aldaketa egitea 50/33311/622060 partidan (Civivoxak. Kultur eta gizarte instalazioak) 1.000.000,00 euroko zenbatekoarekin, obretan eta obra-zuzendaritzan erabiltzeko Zabalguneko Civivoxean, finantziazio ukituko gastuetarako diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/87010 partida).

19.- Aldaketa egitea 50/33310 689010 partidan (Kultur azpiegiturak. Artelanak), 60.000,00 euroko zenbatekoarekin, Sabicasen omenezko eskulturarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

20.- Aldaketa egitea 60/13000 623090 partidan (Herri Segurtasuneko Adm. Orok. Beste instalazioak), 500.000,00 euroko zenbatekoarekin, aisia lasairako eta jarduketak gune arriskutsuetan egiteko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

21.- Aldaketa egitea 60/13210 641000 partidan (Udaltzaingoa. Aplikazio informatikoak), 152.601,00 euroko zenbatekoarekin, Vinfopol polizia sistemarako eta aplikazio informatiko osagarrietarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

22.- Aldaketa egitea 60/13300/619000 partidan (Zirkulazioa eta Seinaleak. Berrezarpen-inbertsioak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan), 250.000,00 euroko zenbatekoarekin, oinezkoen pasabideen segurtasunean, eskola-inguruneetan eta zirkulazioa baretzeko erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

23.- Aldaketa egitea 60/13300 623010 partidan (Zirkulazioa eta Seinaleak. Semaforo-instalazioak), 50.000,00 euroko zenbatekoarekin, semaforo-instalazioen kontraturako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

24.- Aldaketa egitea 70/23110 632060 partidan (Harrera eta komunitate-garapena. Berrezarpen-inbertsioak kultur eta gizarte instalazioetan), 140.000,00 euroko zenbatekoarekin, Caparrosoren txaleteko aterpetxean erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 (Epe luzeko maileguak) partida zenbateko berean gehituz finantzatuta.

25.- Aldaketa egitea 70/23100/625000 partidan (Gizarte Zerbitzuetako administrazio orokorra. Bulegoko altzariak eta tresneria), 25.000,00 euroko zenbatekoarekin, Gizarte Zerbitzuetako bulegoko altzarietan eta tresnerian erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

26.- Aldaketa egitea 70/24110/623000 partidan (Lantegi-eskolak eta programa integratuak. Makineria eta tresnak), 40.000,00 euroko zenbatekoarekin, lantegi-eskoletako makineria eta tresnetan erabiltzeko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

27.- Aldaketa egitea 70 24110/632060 partidan (Lantegi-eskola eta programa integratuak. Berrezarpen-inbertsioak kultur eta gizarte instalazioetan), 150.000,00 euroko zenbatekoarekin, lantegi-eskolen jarduketetarako eta Aranzadi lantegi-eskolan galdara berrezarri eta obrak egiteko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

28.- Aldaketa egitea 70/24120/623000 partidan (Gizarte Enplegua. Makineria eta tresnak), 45.000,00 euroko zenbatekoarekin, Gizarte Enpleguko makineria eta tresnetarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

29.- Aldaketa egitea 70/24120/624000 partidan (Gizarte Enplegua. Ibilgailuak), 100.000,00 euroko zenbatekoarekin, Gizarte Enplegurako kamioia erosteko, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

30.- Aldaketa egitea 70/24120/632060 partidan (Gizarte Enplegua. Berrezarpen-inbertsioak kultura- eta gizarte-instalazioetan) 45.000,00 euroko zenbatekoarekin, Gizarte Enpleguaren jarduketetarako diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

31.- Aldaketa egitea 71/34200/622050 partidan (Udalaren kirol-instalazioak. Kirol-instalazioak), 2.261.000 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Buztintxuriko kiroldegia (obra eta obra-zuzendaritza)	2.000.000,00 euro
Mendillorriko pilotalekua	261.000,00 euro

32.- Aldaketa egitea 71/34200/632050 partidan (Udalaren kirol-instalazioak. Berrezarpen-inbertsioak kirol-instalazioetan), 1.035.255,99 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Etxabakoitzeko pista estalia (obra eta obra-zuzendaritza)	821.000,00 euro
Sanduzelaiko futbol-zelaiaren konponketa (uholdeek eragindako kalteak)	61.083,74 euro
Klimatizazio- eta suteen kontrako babes-sistema Mendillorriko trinketean	39.399,99 euro
Foku-hornidura eta -instalazioa Labrit pilotalekuan	63.772,26 euro
Premiazko berrezarpen-inbertsioak Arantzadiko kirolgunean	50.000,00 euro

33.- Aldaketa egitea 80/32310/622040 partidan (Haur Eskolak. Irakaskuntza-erakundeak), 1.250.000,00 euroko zenbatekoarekin, Lezkairu haur-eskolarako, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

34.- Aldaketa egitea 80/32320/632040 partidan (Ikastetxe publikoak. Berrezarpen-inbertsioak irakaskuntza-erakundeak), 1.901.000,00 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Ermitagaña ikastetxeko patio estalia	700.000,00 euro
Amaiur Ikastolako komunak eta dutxak eraberritzea	162.000,00 euro
Hustubideak aldatzea Doña Mayor ikastetxean	60.000,00 euro
Patioaren estalkia aldatzea Lago-Mendigoiti ikastetxean	316.000,00 euro
Nicasio Landa ikastetxeko estalkia eta kiroldegiko beste zenbait obra	305.000,00 euro
Azpilagaña ikastetxeko leihoen aldaketa	200.000,00 euro
Patioko obrak Lago-Mendigoiti ikastetxean	158.000,00 euro

IRUÑEKO UDALAREN ETA HIRIGINTZA GERENTZIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUAN:

35.- Hirigintza Gerentziaren kargu utzitako obrak:

A) Iruñeko Udalaren aurrekontuan:

Aldaketa egitea 30/15122/710000 partidan (Hirigintza Gerentzia. Kapital-transferentziak erakunde autonomoak), 5.826.148,22 euroko zenbatekoarekin; diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

B) Hirigintza Gerentziaren aurrekontuan:

Kreditu-sorrera, 5.826.148,22 eurokoa, diru-sarreraren 30/70000 partida (Lurralde Entitateen ekarpenak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauek egiteko:

PARTIDA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
30/15122/6090000	Milagrosako hiri-jarduketarako plan berezia	36.300,00 euro
30/15122/6090000	Trinitarioseko igogailuaren 1. fasea (obra eta obra-zuzendaritza)	2.491.436,94 euro
30/17100/6090000	Txantreako Hegoaldea: 2. eta 3. faseetako separatak	32.314,89 euro
30/17100/6090000	Arantzadiko proiektua eta obra-zuzendaritza	36.687,20 euro
30/17100/6090000	Arantzadiko ekoparkea: 1. saila	2.695.621,07 euro
30/17100/6090000	Arantzadiko ekoparkea: 2. saila	456.988,12 euro
30/15122/6260000	Ekipamendu informatikoak	10.000,00 euro
30/15122/6410000	Aplikazio informatikoak	66.800,00 euro

IRUÑEKO UDALAREN ETA HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUAN:

36.- Obrak eta beste inbertsio batzuk Haur Eskolak erakundeak kudeatuta:

A) Iruñeko Udalaren aurrekontuan:

Aldaketa egitea 80/32310/710000 partidan (Haur Eskolak. Kapital-transferentziak erakunde autonomoi), 1.074.748,18 euroko zenbatekoarekin, diru-sarreraren 20/91301 partida (Epe luzeko maileguak) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauetan erabiltzeko:

B) Haur Eskolen aurrekontuan:

Kreditu-sorrera, 1.074.748,18 eurokoa, diru-sarreraren 71/70000 partida (Iruñeko Udalaren dirulaguntzak kapital-gastuetarako) zenbateko berean gehituz finantzatuta, honako hauek egiteko:

PARTIDA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
71/32310/622000	Mendebaldea haur-eskola: eraberritzea	810.823,18 euro
71/32310/622000	Haur-eskolen egokitzapena: Hello Buztintxuri eta Printzearen Harresi	16.000,00 euro
71/32310/625000	Mendebaldea haur-eskola: ekipamendua	16.190,00 euro
71/32310/625000	Lezkairu haur-eskola: ekipamendua	216.425,00 euro
71/32310/626000	Ekipo informatikoak: Mendebaldea eta Lezkairu	15.310,00 euro

I – AURREKONTU-ALDAKETA GUZTIETARAKO XEDAPEN KOMUNAK

37.- Aldaketa-mota zehatzik aipatzen ez den puntuetan, aldaketak kreditu-gehigarri edo ezohiko kreditu gisa eginen dira, kasuan kasuko partidak krediturik esleituta duen ala ez dagokion entitatearen indarreko aurrekontuan.

38.- Aldaketa hauetarako guztietarako, aurrekontuko aplikazio-mailarekiko lotura kualitatiboa ezartzen da aplikazio berean kontzeptu bat baino gehiago sartuz gero, eta aurrekontua betearazteko oinarrietako 10.aren 8. apartatuan ezarritako irismenarekin bat, aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

Berariazko lotura kualitatiboak ezartzen dira, kasuan kasuko aurrekontu-programaren mailan, programa hauetan aldaketak egiteko orduan:

- 11/92001 – Informatika eta Teknologia berriak
- 70/24110 – Lantegi Eskolak eta Programa Integratuak
- 70/24120 – Gizarte Enplegu Babestua

39.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasieran batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespén hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten puntuek indarra har dezaten. Hori ez da aplikagarria Iruñeko Udalaren Aurrekontuan egindako kreditu-sorreren kasuan, non Osoko Bilkuraren erabaki honek buru ematen baitio tramitazioari.

40.- Udaleko Hirigintza Gerentziaren eta Haur Eskolen aurrekontuetan egindako kreditu-sorrerek indarra hartuko dute Iruñeko Udalak egiten dizkien kapital-transferentzien aldaketek indarra hartzen dutenean, haiek finantzatzen baitituzte.»